

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresak asmatutako aplikazioak, Euskal Herriko unibertsitateen graduatarako informazioa batuko duenez, zuzeneko bezeroak edukiko ditugu eta baita zeharkakoak ere. Esaterako, bezero nagusi bezala nerabeak aurkituko ditugu, etorkizun batean unibertsitateko gradu bat egiteko asmoa dutenak eta haien zalantzak argitu nahi dituztenak.



Gaur egun unibertsitate eta graduei inguruan informazioa badago ere, oso zaila da hau nerabeek ulertzea, agertzen diren orrietan dena oso teknikoki idatzia dagoelako edo dagoena ez delako argi ateratzen. Beraz aplikazio berri honek erabiltzaileen zalantza guztiak argitzeko egokia izango da.

Aukeraketa egiterakoan gehien bat kostatzen dena zein unibertsitate gradu ikasteaz gain, zein unibertsitatea aukeratu ere zaila egiten zaigu eta gure aplikazioan graduen informazioaz gain, unibertsitateena ere badaukagu.

Bestalde, oso garrantzitsua den beste gauza bat ere aurkitu ahal izango da aplikazioan, hau da, ikasleak herritik/bizilekutik atera behar izaten du nahi duena ikasteko, unibertsitate etxetik urrun egoten baita. Gure aplikazioak, beraz, unibertsitate inguruan dauden egoitzen informazioa ere bilduko du.

Beste bezero xede talde bat ere, bigarren gradu bat egiteko interesa duen edozein pertsona izango da. Badaude pertsona batzuk bigarren gradu egin nahi dutenak, hau da, behin karrera bat bukatuta, horretaz lan ez aurkitzearen ondorioz beste gradu bat egitea erabakitzen dutenak, momentu horretan lan irteera handiagoak izango dituela ikusita edo gradu horren inguruan interesa sorraraziz gero.

Azkenik zeharkako bezero moduan gurasoak izango ditugu, hauek askotan haien seme-alabak lagundu nahi izaten dute, baina informazioa falta dela eta ezin izaten dute. Beraz aplikazio honen bitartez, gurasoek ere informazioa bilatzeko aukera izango dute.